

LAZKAO TXIKI NOR ZEN

ANTTON KAZABON

DOINUA: Ez nau izutzen (X.Lete) -Zortziko Handia-

1.-Lazkao Txiki nor zen galdetu
zidaten lehengo batean,
eta ni ere nonbait nengoen
horrelako aldarlean...
Tirriki-tarra erantzun nien
patxadazko txolarlean
bertsozaleak ugaltzen joan
zitezen gure artean.

2.-Era honetan agertu nien
neronek nekien dena:
*-Joxe Migel zen haren izena,
Litueta abizena;
baserrikoa, baserritarra,
senideetan seigarrena,
Lazkaomendin jaio ta bertan
hazi, bi zi ta hil dena.*

3.- Aurpegi lehuna, eta ibilera
oso pausu handikoa,
ilea urdindu ta gero ere
zirudien mutikoa;
bere hitzetan jarrita, hara,
gizon honen fisikoa:
Mutil txikia, arkume edo
bildots baten antzekoa.

4.- Bertsolaria apartekoa,
jaiotzetik bertsolari,
umorerako beti pronto ta
tristeziarako nagi;
inoiz gutxitan isilik eta
sarritan bertso kantari,
bertsoak eman dio bizia
eta berak bertsoari.

5.- Ez zen azaltzen doinu, errima
eta neurrien mirabe,
gaztetatikan bait zen bertsoen
sekretu guztien jabe;
kantari, berri, ahots apalez,
goxo, ezti eta bare...
bertsorik ezin liteke ulertu
Lazkao Txikirik gabe.

6.- Kantari hasi baino lehenago
jendearen irrifarra
edo algara lortzen zekien
bertso egile bakarra,
eta kantari hasitakoan
ziria eta piparra
azken puntuan sartzen maisua,
pikarua ta azkarra.

7.- Gaiak horrela agintzen eta
askotan alabezarrez,
zekien barre egin arazten
ironiaren indarrez,
ta berdin-berdin ohartzera
jartzen gintuen negarrez
bihotza ukituz barreneraino
bertso triste ta xamurrez.

8.- Garaipen eta sariak ere
aitatu behar ondoren,
berrogei urte baino lehenago
guztiengandik nabarmen;
urte haietako garaipenetaz
bakarrikan bi aipamen:
Gipuzkoako txapeldun eta
Euskal Herriko bigarren.

9.- Hasi Uztapide ta Zepairekin,
geroztik ez zen gelditu,
Mitxelena ta Xalbador ere
ohi zituen errenditu,
ta bazekien Egaña eta
Maialen nola gainditu;
lau belaunaldi dantzan jartzeak
ez al du nahiko meritua.

10.- Gure artetik joan zaigu ta
euskadunok triste gauzka
bere bertsoak, ordea, gure
arteak utzirik dauzka,
baina, ez zuen amodioan
aurkitu gustozko bazka
ta segidarik gabe, tamalez,
gelditu da bere kasta.-

11.- Saiatu nintzen garbi agertzen
Joxe Migelen figura,
jarri zidaten nahiko arreta
jarri zidaten ardura,
eta besterik ez zitzaidanez
momentu hartan burura,
era horretan bukatu nuen
nire berriketa hura.

12.-Lazkao Txiki nor zen galdetu
zidaten lehengo batean,
eta egonik erantzuteko
umorezko aldarlean,
azaldu nien gizon hau nor zen
patxadazko txolarlean,
ta baditugu lau bertsozale
gehiago gure artean.